

Irizar i2e, Irizar Taldearen autobus % 100 elektrikoa Parisko Bus COP21en izango da

Irizar i2e, Irizar Taldearen hiru autobus %100 elektrikoa Parisen aurkeztu du RATPk (Frantziako garraio publikoko talde handiena) ekitaldi ofizial batean Bus COP21 gailurraren testuinguruan.

Ormaiztegin, 2015eko abenduaren 14an

Ekitaldia Place Jacques Rueffn egin zen, Elisabeth Borne, Jean-Paul Huchon eta Anne Hidalgo buru zirela, RATPk Zuzendari Nagusia, STIFeko Batzordeko Presidente eta Parisko alkatea, hurrenez hurren. Helburua zen prentsari, erakundeei eta publikoari, oro har, RATP 2025 proiektuan testatzeko faserako aukeratu diren autobusak aurkeztea. RAPT 2025ek aurreikusten du Parisen 4.500 autobus unitate izango direla urte horretarako, haietako % 80 elektrikoak eta % 20 biogasezkoak.

Irizar i2e RAPTk aukeratu dituen autobusetariko bat da eta aukeratuen artean egoteko baldintza pleguak hainbat ezaugarri eskatzen dizkio autobusari. Esaterako, ibilgailuak % 100 garbiak izatea, batez beste 80 bidaiarientzako tokia izatea eta 180 km-ko autonomia izatea gauean kotxe-tokian karga bakarra eginda. I2ek 21 eta 147 lineatan emango du zerbitzua.

Parisen aurkeztutako 12 m-ko autobusaren ezaugarri nagusienak dira zoru baxu jarraitua eta bi ate bikoitz, nagusia arrapala elektrikoarekin. Motor elektrikoak 180 kWko potentzia du eta 376 kWhko energia du biltegitatuta. Beraz, Parisko zirkulazio baldintzetan 180 eta 200 km artean egingo dituela aurreikusten da. Berrikuntza gisa aipa dezakegu gidariaren gunerako hotz-bero unitatea.

Irizar i2e European egin da Europako teknologiarekin, iraunkorra da, eko-eraginkorra, segurua, fidagarria eta eroso. Espainian egiten da eta Irizar Taldeak bereziki diseinatutako abangoardiako teknologiak ditu.

2014ko uztailetik ari da zerbitzua ematen, gaur egun Donostian, Bartzelonan, Marseillan (Frantzia), eta Londresen (Ingalaterra) eta dagoeneko probatu dute Madrilan, Bartzelonako metropoli-eremuan eta Baionan eta ustiapen emaitzak oso onak izan dira: 200 eta 220 km arteko autonomia du (14 eta 16 h artean) eta konfort eta klimatizazio maila oso ona, egunaren bukaeran behin bakarrik kargatuta 5 orduz.

Igorpenik egiten ez duenez eta isila denez Irizar i2e hirientzat eta haietako biztanleentzat garraio egokiena da eta 315,28 tona CO2 isurtzea saihesten du.

Fabrikatzerakoan eko-diseinuaren irizpideak aintzat hartzen ditu eta ingurumen irizpideak ere bai.

Bateriak % 99 birziklatu daitezke eta autobus diseinatzeko errentagarritasun parametro altuenak erabili dira. Horrela, bere jasangarritasunak eta errentagarritasunak ustiapen gastuak optimizatzen dituzte.



Autobus elektrikoak eskakizun zorrotzeneri erantzuten die segurtasun aktiboari nahiz pasiboari dagokionez. Merkatuan dagoen hiriko lehen autobus elektrikoa da R.66 iraultzearen kontrako segurtasun araua errespetatzen, Marseillan dabilena, hain zuzen.

Irizarrek hiri mugikortasunean lider gisa posizionatzeko asmoa berresten du ematen ari den urratsekin eta hirietako ingurumenaren iraunkortasun eta hobekuntzaren aldeko apustu argia da.

RATPi buruz

RATP Taldea garraio publikoko munduko bosgarrena da. Metroa, trena, tranbia, autobusa, RATP taldekako garraio bide guztietan dago presente. Île-de-Francen munduko sare intermodal dentsoenetako bat ustiatu, mantendu, modernizatu eta garatzen du. Egunero 14 milioi pertsona baino gehiago garraiatzen ditu Frantzian eta mundu guztian. RATPk eta haren filialek kontinente guztietara esportatzen dute eredu hau. Zerbitzu publikoaren zentzuak batuta Taldeko 57.976 gizon-emakumeek helburu bera dute: Bidaiariak lasai, bizkor eta oso eroso joatea toki batetik bestera.

La ville durable datozen urteetarako estrategia nagusietako bat da. Elisabeth Borne, RAPTko Zuzendari Nagusiaren hitzetan, *"Gure metroak, aldirietako trenak eta tranbiek autoek baino % 50 CO2 gutxiago kontsumitzen dute bidaiariko". "Baina RATPk beste urrats bat egin nahi du Bus2025 planaren laguntzarekin. Helburua da 4.500 autobus unitate izatea, haietako % 80 elektrikoak eta % 20 biogasezkoak 10 urteko epean eta horrek RATP autobus garbien munduko lider bihurtuko luke".*